

## Hezkuntza orientabidea eta tutoretza

### 1. Oinarrizko datuak

- **Irakasgia:** Hezkuntza orientabidea eta tutoretza
- **Modulua:** Modulu Generikoa
- **Izaera:** Derrigorrezkoa
- **ECTS kredituak:** 3
- **Iraupena:** 3 aste
- **Irakaslea:** Irene Lopez Goñi

### 2. Irakasgaiaren laburpena

Bigarren Hezkuntzako masterrak ahalbidetzen du Bigarren Hezkuntzan irakasle aritzeko, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zein Derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntzan (Batxilergo zein Lanbide Hezkuntza).

Tutoretza lana aurrera eramaten da maila eta hezkuntza ingurune ezberdinetan. Halaber, kontuan izan behar dugu master honek edozein hezkuntza mailatan edo modalitatetan Tutore aritzeko gaitasuna ematen duela. Horregatik, hain zuzen ere Irakasgai honetan Tutoretza funtzio eta esparru zabalak zein zehatzak landuko dira.

#### HELBURUAK

- 1.-Tutore lanbide-gaitasunak identifikatu eta deskribatu, baita hezitzaile gisa duen eginkizunari dagozkionak ere.
- 2.-Hezkuntza-harremanetan proposamen proaktiboak eraiki, irakasleekin, ikasleekin, familiarekin eta komunitatearekin dituen jarduera-eremuan, era kooperatiboan lan eginez.
- 3.-Orientazio-lana eta, bereziki, tutoretza bere gain hartu, dauden programa espezifikoak analizatu eta gizarte-bazterkeriaren aurkako eta garapen pertsonalerako prebentzio-eta esku-hartzeko programak proposatu, era kooperatiboan lan eginez.
- 4.-Tutoretza ekintza-plana (TEP) diseinatu eta garatu, komunitatearen hezkuntza-proiektuari arreta berezia eskainiko diona, ikasleen proiektu pertsonala, soziala eta akademikoa kontuan hartuz

5.-Portfolioa antolatu era autonomoan eta ikasitakoari buruz hausnarketa sakona egitea.

6.- DILAN: Ikasitakoa aplikatu era integratuan eta egoera konplexu batean eta taldean lan egiteko gaitasuna garatu

### **3. Gaitasunak**

#### **Ikas emaitzak**

- Tutoretza-orientatzailearen lanbide-gaitasunak identifikatzea eta deskribatzea, baita hezitzaile gisa duen eginkizunari dagozkionak ere.
- Orientazio-lana eta, bereziki, tutoretza bere gain hartzea, gizarte-bazterkeriaren aurkako eta garapen pertsonalerako prebentzio- eta esku-hartzeko ekintza gisa.
- Hezkuntza-harremanen jarrera proaktiboa eraikitzea, irakasleekin, ikasleekin, familiarekin eta komunitatearekin dituen jarduera-eremuan.
- Taldean lan egiteko gaitasuna garatzea, tutoretza lankidetzara lana dela ulertuta (kooperatzea, entzutea, parte hartzea, enpatiko izatea ...).
- Tutoretzako ekintza-plan bat diseinatzea eta garatzea, komunitatearen hezkuntza-proiektuari arreta berezia eskainiko diona, ikasleek erabakiak hartzea eta proiektu pertsonala, soziala eta profesionala eraikitzea erraztuko duena.

### **4. Irakasgai-zerrenda (gaitegia)**

- Irakaslearen konpetentziak eta tutorearen funtzioak
- Tutoretza ikastetxearen markoan
- Tutoretzarako programak eta ekiteko proposamenak
- TEP: azterketa eta diseinua

### **5. Bibliografia**